

Aingern Epaltza

## Galtzeko denborarik ez

**H**orra Olentzerok opari utzi didan liburua: *Sin tiempo que perder*. Miguel Sanchez-Ostizen dietario errumaniar-txiletar-eskoziarra, Alberdaniak plazaratua, nire herrikidearen azken idazlan gehienak bezala. Eskerrak bihurtu dizkiet etxekoei. Asmatu dute gustukoa dudana idazlearekin. Haien ziri amultsuaz ez ohartzeko bezain kamutsa ez naiz, dena dela.

Sanchez Ostiz bezainbat bidaiatu gabe ere, nik ere denbora galtzeari izua hartu diot aspaldi honetan. Egunei eta gauei etekina ateratzeko grinak joa nabil. Asteburuetan, lanegunetako egutegi berdintsua erabiltzen dut, doi-doi luzaturik lo egiteko orenak. Gero eta bakanagoak ditut etxeko salako eserialdiak. Planak mahai gainean metatzen zaizkit. Solasaldietan, aise ateratzen dira nire ahotik “goazen!” eta “dezagun!” bezalako adizkiak. Oraintxe bertarako nahi ditut zinez interesatzen zaizkidan gauzak, ez biharko eta are gutiago etziko.

Horrek guztiak, bistan dena, bere prezioa du. Azaldu beharrik ez da nire ingurukoendako zenbateraino den durduzagarri nire presa hori, zenbateraino nekagarri nire beti zerbaitetan ari behar hori. Alabak txantxa izpirik ez zuen ageri berrikitan jaulki didanean: “Aita, eritasun txar bat diagnostikatu badizute, erran behin goz, hilabeteko bizitza geldituko balitzaizu bezala ari baitzara”.

Alabak badaki, alabaina, ez naizela eri, urteez ez bada. Batzuei pausatzeko gogoia ekartzen diete urteek. Nik hiperraktibitatea zor diet.

Hona inork gutik dakien sekretua: mende erdia beteko dut heldu den otsailan. Bortz hamarraldi. Berrogeita hamar urte. Egitate itzulezin horren aitzinean bat heldu dira Psikologia eskola gehienak: adin arriskutsua da gizasemeondako. Edo gisame guztiendako ez



DANI BLANCO

bada, bai anitzendako, bederen. 40etako krisialdi beldurgarria erabat gaititu gabe dugula, 50etakoan erroizten gara gutiz gehienak. Gaitzaren sendabide, aholkatzen digute urteen etorriari amore emateko eta duintasunez zahartzen ikasteko. “Patetikotasunetik urruntze aldera, baizik ez bada ere”, gehitzen dute gaitoki. Kontseilu zuhurra, inondik ere, baina adin batzuetan ez gaude kontseilu zuhurrak aditzeko. Hartara matxinatzen gara, eta denborari gerla deklaritzen. Estatistika kontra dugu. Gatazka horretan gizonen %100 galtzaile gertatzen dela badakigu, baina hori nori inporta zaio? Hemen sortu garenok abantaila dugu alde horretatik. Euskaldunok sekulako eskarmentua dugu gerlak galtzen.

Uler bitez ongi gauzak. Gauza batzuetan etsi dut. Konparaziorako, honezkeror badakit ez dudala behin ere Naomi Campbellekin asteburu berorik izanen, Karibeko uharte batean. Orobat jakin nire ingelesaren txukunak ez duela inongo entzulerik liluratuko, edo nire –tamalez, ez bertze inoren– zutabe bateko salaketek ez dutela sekula UPNren gobernu betierekoa eraitsiko. Xede egingarriagoak finkatu beharko.

Luzea da oraindik egin ez ditudan (bertze) gauzen zerrenda. Anitz dira inoiz ezagutu gabeko hiri eta lurraldeak. Zer esanik ez oraino igo gabeko mendiak, irakurri gabeko liburuak edo, beharbada, idazteko ditudanak. Horretarako guztirako, denbora baizik ez dut behar. Ziriak ziri, maite nautenen damuz, galdu nahi ez dudana denbora.

Nik, 2010 hasi berri honetarako, horixe nahi nuke bai niretako bai, eskatzen hasita, munduko bazter honetan zerbaitetan ari diren bertzeendako ere. Denbora, ez galtzeko. ■

Honezkeror badakit ez dudala behin ere

Naomi Campbellekin asteburu berorik

izanen, Karibeko uharte batean. Orobat

jakin nire ingelesaren txukunak ez duela

inongo entzulerik liluratuko, edo nire

zutabe bateko salaketek ez dutela sekula

UPNren gobernu betierekoa eraitsiko.

Xede egingarriagoak finkatu beharko